

**LEHENDAKARIAREN HITZALDIAREN FUNTSEZKO ILDOAK
POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDA, 2018****Eusko Legebiltzarra, 2018ko irailaren 20a****LEHEN ZATIA: EGUNGO EGOERAREN IKUSPEGI OROKORRA**

Legegintzaldi honetako lehenengo bi urteak igaro dira jada, eta balantzea egiteko unea da, bai egindako jarduerena, bai Gobernu Programa betetzeko abian jarriko diren hurrengo ekimenena.

Garai honetan, gobernuak bere buruari oso gogor eragin dio. Ikus ditzagun emaitza nagusiak:

-Programa Eragilearen % 100 jarri dugu martxan. 175 konpromisoetan eta 655 ekimenetan bada jarduerarik martxan. IREKIA gardentasun-atarian 3.268 jarduera argitaratu ditugu.

-Legegintzako egutegia osatzen duten 28 lege-proiektuetatik, 3 jada ganbera honetan onartuta daude (Kiroletako Dopina, Lanbide Heziketa eta Portuak eta Itsas Garraioa); beste 7, tramitazio-bidean dira, eta 9, Gobernuan dira tramititzen hasiak. 19 ekimen jarri ditugu martxan; eta, gainerako 9ak, legegintzaldiko bigarren zatian osatuko ditugu.

-15 plan estrategikoak onartu ditugu, eta indarrean dira. Joan den irailetik, hauek onartu dira: Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana; Enplegu Plan Estrategikoa; Euskararen Agenda Estrategikoa; Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana; eta Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plana; eta baita beste bi ere: "Euskadi Basque Country" Nazioartekotze Estrategia, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

-Sailetarako 58 planetatik, 45 indarrean dira, % 77. Lehen seihilekoan soilik, 14 plan onartu dira. Horien artean: Familiei Laguntza emateko Erakundearen arteko Plana; Etxebizitza Plan Zuzentzailea; Enpresak Nazioartekotzeko Plana; edo Herriartasunaren, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren arloko Jarduketa Plana.

-Sailek, erakunde autonomoek eta ente instituzionalek onartuak dituzten 2018rako beren **Dirulaguntzetarako Plan Estrategikoak**. Plan horiek 1.528 milioi euro mugiarazten dituzte ildo hauetan: Ekonomia Suspertzeko, Enplegurako eta Jasangarritasunerako ardatzean, eta giza garapenean, gizarte-integrazioan eta berdintasunean.

Giza Garapen Jasangarriaren eredia da gurea, eta daukagun testuingurua ziurtasunik eta egonkortasunik gabea da, bai eremu ekonomikoan, bai eremu politikoan eta sozialean. Agertoki honetan, errealismoz eta erantzukizunez aurre egiten dio Euskadik egoerari, behar diren aldaketak eginez eta bihar-etziko erronkei erantzunez.

Nazioartean, areagotzen ari da protekzionismo ekonomiko eta soziala, eta, gainera, zalantzan jartzen da multilateralismoa. Merkataritza askearen arauak aldatzen ari dira, eta mugak ixten, migrazioen dramaren aurrean. Mundu osoari eragiten dion gai bat da, eta, beraz, Europak erreakzionatu egin behar du, politika komun bat ezarri.

Europar Batasunak zailtasun handiak ditu munduaren erronka handiei erantzun eta konponbide propioak nola eskaini asmatzeko. Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaida zabalik dago, eta guk irmo eusten diogu europar proiektuaren aldeko apustuari; horren erakusgarri da Europaren etorkizunaren ikuskeraren gainean aurkeztu dugun dokumentua.

Ekonomiaren eremuan, eutsi egiten diogu hazkundearen zikloari. Oraingo aurreikuspenak ere positiboak dira bai ekonomiaren arloan, bai enplegua sortzeko ahalmenari dagokionez. Langabezia-tasa % 10etik beherakoa izatea eta enpleguaren baldintzak eta kalitatea hobetzea; horra hor Euskadin ditugun helburuak.

Testuinguru politikoan, nabarmentzekoa da Espainiako Gobernu berriaren jarrera. Gernikako Estatutua betetzeko lan-egutegian aurrera egitea funtsezko gai bat da. Espainiako gobernu berriak, halaber, aukera du estatuaren ereduaren krisiari beste modu batean, modu eraikitzaile batean erantzuteko, estatuaren izaera plurinazionala onartuta betiere.

BIGARREN ZATIA: GOBERNUAREN JARDUNA

Legegintzaldiaren urtebete eta erdi joana den honetan, egin dezagun lehen balorazio bat, eta ikus dezagun **zenbateraino bete diren** herrialderako 15 helburu horiek.

1. helburua.- EBko Barne Produktu Gordinaren % 125era heltzea.

Gaur egun, Euskadi Europar Batasuneko batez bestekoaren % 122an da, eta Espainiar estatua, berriz, 92an. Zenbaki absolutuetan, horrek esan nahi du biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordina 33.000koa dela Euskadin, eta 30.000koa Europar Batasunean.

2. helburua.- 2020rako, langabezia % 10etik behera murriztea.

Adierazle horren joera positiboa da. Legegintzaldia hasi zenetik, langabeziaren tasa 3,3 puntu mehetu da. 2016an % 13,4an zegoen, eta gaur egun % 10,1ean da.

3. helburua.- 20.000 gaztek lehen lan-esperientzia izan dezaten lortzea.

Begira dezagun Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programan, eta ikusiko dugu 2017an guztira 5.000 gaztek egingo bide zutela lehen ekinaldi bat lanean. Azkenean, 6.856 gaztek ekin diote beharrari.

4. Helburua.- 100 berrikuntza-proiektu estrategiko abiaraztea.

43 milioi euro erabili ditugu, 35 berrikuntza-proiektu estrategiko martxan jartzeko. Hona hemen adibide azpimarragarrietako batzuk: R-composites proiektuak, material konposatuen aplikaziorako; Modeol, energia eolikoko belaunaldi teknologikorako, edo Nanogrow, zelula-terapiako aplikazioak, nanoteknologia eta 3Dko fabrikazio aditiboa.

5. helburua.- Berotegi-efektuko gasen isuriak % 20 gutxitzea.

Adierazle hau 2020 Estrategia Europarrak darabilena da. 2005. urtea harturik erreferentziatzat (% 100), isurketa % 20 murrizteko helburua dakar. Euskadin isurketak % 26 murriztu dira, eta Batasunean, berriz, % 17, 3, batez beste.

6. Helburua.- Europako defizit publikoaren konpromisoa betetzea.

2017an aurreikusitako helburua bete genuen. Konpromiso horrek gehienez % 0,6ko defizita ezarri zuen Euskadirako, eta ekitaldia superabitarekin itxi genuen, kudeaketa arduratsuari, diru-bilketaren hobekuntzari eta kupoa likidatzeko 2007-2016 akordioari esker.

7. helburua.- Nazioarteko gardentasun-indizeetan, aurre-aurrean gu.

Euskadi pasa da indize horretan 2010ean ehundik 57,5 puntu izatetik, 2014 eta 2016ko azken neurketetan 100dik 100 puntu izatera.

“Gobernu Kalitatearen Indizean” ere hobera egin du Euskadik. Goteborgeko Unibertsitateak egiten du Europako Batzorderako, eta hiru adierazle aztertzen ditu: ustelkeria, erabakiak hartzeko inpartzialtasuna, eta zerbitzu publikoak eskaintzeko eragingarritasuna.

8. Helburua.- Bizi-itxaropena urtebetez handitzea.

Legealdi hasieran, bizi-itxaropena 83 urtekoa zen; hortaz, helburu hau beteko badugu, 2020an 84 urtetan behar du egon. Gaur egungo datua 83,5ekoa da; hau da, jai berrien bizi-itxaropenean, Euskadi Europaren buruan da.

9. helburua.- Eskola-uztearen tasa % 8 baino txikiagoa izatea.

Ratioa Europa-mailan neurtzen da, jakiteko ea, ehunekotan, 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean zenbatek ez duen amaitzen Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa, Batxilergoa edo erdi mailako LH.

Legegintzaldia hasi zenetik, eskola-uztearen tasa 0,9 puntu murriztu da, eta % 7an da gaur egun. Estatu guztiko ratorik baxuena da, eta Europa guztiko apalenetako bat.

10. Helburua.- 2020an 25 urte baino gutxiagoko gazteen % 75ek euskaraz jakitea lortzea.

2016ko Soziolinguistika Inkestaren arabera, 16 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen % 71,4 euskaraz hitz egiteko gauza da. Gure helburua 2020. urterako % 75 izan daitezen lortzea da. Administrazio publikoen konpromisoa da euskararen ezaguera hobetzea eta erabilera indartzea, bai gelan bai gelaz kanpoko jardueretan eta aisialdian.

11. helburua.- Pobrezia-tasa % 20 murriztea.

Europar erreferentziatzat erabiltzen den adierazlea Arope indizea da, zeinak eskualdeka ematen baititu datuak. Legegintzaldiaren hasierako datua % 17,6 zen; beraz, helburua da tasa hori % 14,1 izatea 2020. urterako.

Eurostatek Euskadiri buruz eman duen azken datua hau da: % 14,5 2017an; Europar Batasuneko daturik baxuenetariko bat da. Tasa hori Finlandia, Suedia edo Danimarka moduko herrialdeek dutena baino txikiagoa da, eta oso urruti dago Europako batez bestekotik (% 23,7 2016an) eta Estatuko batez bestekotik (% 26,6 2017an).

12. helburua.- Jaiotze-tasa handitzea, eta umerik baduten familiei laguntza handiagoak ematea.

Legegintzaldia hasi zenean, 1.000 biztanleko 8,7koa zen jaiotze-tasa.

Azken datu ofiziala 2018koa da: 2016ari buruzkoa da, eta 8,4ko zenbakia ematen du; urruti dago Europako tasatik, 10eko tasa baitu.

13. helburua.- Euskadi genero-berdintasunaren arloan Europako lehenengo lau herrialdeen artean kokatzea.

Indize horren azken neurketa 2018ko martxoan argitaratu zen, 2015eko datuak zekartzan, eta, haien arabera, Euskadi bederatzigarren dago Europako herrialdeena artean. Suedia, Danimarka eta Finlandia dira buru, baina gu Alemania, Austria, Italia edo Espainia moduko herrialdeen aurretik gaude.

14. helburua.- ETArein behin betiko armagabetzeari eta desegiteari amaiera ematea.

Baieztaatu da desagertu dela ETA; desagertzea aldebakarrekoa izan da, efektiboa eta betiko. Horixe aipagarriena aurtzen. "Amaitu da ETA betiko" esan dezakegun Politika Orokorreko lehen eztabaida da hau.

Ezberdintasunaren eta emakumeen aurkako biolentziaren arteko lotura ezinbestekoa da. Lege bat proposatuko dugu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako biolentzia errotik desagertarazteko.

15. Helburua.- Autogobernua eta estatus politiko berria Euskadirako.

Aipa ditzadan jaurlaritzak arlo horretan izan dituen jarduerak propio esanguratsuenak:

- Akordioak lortzea Kupoari eta Ekonomia Itunari buruzko legeak onartzeko.
- Alonsotegi–Barakaldo eta Bilbo–Basauri trenbideak eskualdatzeari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren aldeko jarrera eta eskualdatze horren bideratzea.
- Espainiako Gobernuari Eusko Legebiltzarraren agindu bat helaraztea, lan-egutegi bat aurkez dezan Gernikako Estatutua betetzeari ekiteko.

-"Bitariko Lankidetzaren Batzordea, Estatuko Administrazioaren eta Euskadiko Administrazioaren artekoa", Gernikako Estatutuko 37 transferentzia egin gabeak eskualdatzeko.

HIRUGARREN ZATIA: ETORKIZUNENKOA ERRONKAK.

Datozen hilabeteetan garatuko diren ekimen nagusiak bi ardatzetan egituratzen dira: Hazkunde Jasangarria eta Giza Garapena. Gure helburu nagusia da ekonomia bultzatzen jarraitzea, enplegu gehiago eta hobea sortzen laguntzeko; horrekin batera, politika publikoak eta Jaurlaritzaren lehentasun soziala finkatzea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan, ekimen oso garrantzitsu bat garatzen gabilta: Soldata Arrakalaren kontrako Estrategia (2030); 2019-2020 Plan Operatiboa ere egin dugu. Planean, erantzun espezifikoak planteatuko dira, eta 12 ekimen traktore eta 60 jardute-neurri zehatz baliatuko.

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloan, hauek dira Jaurlaritzaren lehentasuneko jarduerak: terrorismoaren biktimekiko elkarrizketan, lankidetzan eta akordioetan sakontzea; Bertizeko Adierazpeneko aurreikuspenak sustatzea, kritikoki hausnartuz indarkeriak egindako minaren bidegabekeriaz eta espetxe-politika aldatu beharraz; eta, Gogora Institutuaren bitartez, memoria-politiketan ahalik eta kontsentsu handiena sustatzea, memoria historikoa ere kontuan hartuta.

Horretaz gainera, ekimen batzuk abiaraziko ditugu, bizikidetzaren inguruan azaleratzen ari diren erronkei erantzuteko: Errefuxiatuek sufritzen duten krisi humanitarioari erantzuteko esparru-dokumentua; Kultura Zentroei buruzko Legearen onarpena; Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren sorrera; Euskal erkidego islamikoarekin batera bizikidetzaren sustatzeko jarduketaren programa, eta Ados Aholku Batzordearekin egindako lana.

Elkartasunez eta erantzukizunez jarduteko eta Giza Garapen Jasangarriaren alde egiteko, erantzuna eman nahi diegu berdintasun, migrazio, demografia eta bizikidetzaren inguruko erronkei, Europaren sorrerako balioetan eta idealetan eta Giza Eskubideekiko konpromisoan oinarrituta.

Aurten betetzen ditu, hain zuzen ere, 70 urte Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak. Urteurren hori ospatzeko, nazioarteko kongresu bat egingo dugu azaroaren 7, 8 eta 9an.

Etorkizuneko erronken ikuskera honetan, amaitzeko, **Euskadiren Autogobernuari** helduko diogu.

Urte honetan, legebiltzarreko taldeek etorkizuneko erronka kolektiboei ondoen nola aurre egin adierazi dute. Oraindik ere irekita dago elkarrekin hitz egiteko eta akordioak lortzeko denbora; horixe da garrantzitsua. Konkordiarako bidea hasi baino ez dugu egin.

Konkordia konbergentziaren bitartez lortzen da, lehenago erdietsitako kontsentsuak zabalduz. Adostuta dagoenetik aurrera egiteko, erabakigarria da leialtasuna. Leialtasuna, lehenik, iraganean formalizatutako eta euskal gizarteak berretsitako itun politikoei. Itun garrantzitsuena Gernikako Estatutua da, 1979. urtean erabakia, onartua eta berretsia.

Baina, hala ere, Estatutua bete gabeko arau bat da oraindik ere. lazko irailean ganbara honetara bidali genuen transferentzia egin gabeen dokumentuan, zehatz azaltzen da Estatuak euskal herritarrekin duen zorra, gure autogobernuaren inguruan lortutako eta berretsitako kontsentsuak betetzeari dagokionez.

Gaur aukera ona dugu bestelako etorkizun bat azaleratzeko. Baldintza egokiak daude gure autogobernua arrakastaz eguneratzeko eta proposamen instituzional bideragarri bat adosteko, gure bizikidetzaren garai eta desafioetara egokituta.

Urte honetan, erakutsi dugu zer asmok gidatu behar duen gure bidea. Estatuko botereek ere asko lagundu dezakete fase berri honetan, beren benetako lurralde-ereduari helduz. Aukera dute beren barne pluraltasuna onartzeko; beren lurralde-aniztasuna onartzeko, jakinik asmo oso bereziak dituzten gehiengoak daudela; Euskadiren errealitate nazionala eta Erkidego berezia izateko daukagun eredia aitortzeko; eta aitortzeko gaitasuna dugula autogobernurako proposamen propioak formulatzeko, gure artean negoziatu eta adostu ondoren. Badute hori egiterik, eta hala egin behar dute.

Daukaguna baloratzea dagokigu, eta behar ditugun aldaketak partekatzea. Aurten, aukera izan dugu ideia hori partekatzeko, 140. urteurrenean baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna, gure autogobernuaren ardatz nagusia.

Euskadiren autogobernuak erreferentziako balio historikoa du, eta ahalmen handia. Oinarri horren gainean hazi behar dugu. Bizikidetzarako oinarritzko arauak irautea dute helburu. Gehiengoaren akordio batek haren etorkizuna bermatzen du. Kontsentsu zabalago batek, berriz, sendotzen. Kontsentsua zabaltea; horixe da gakoa. Estatus berria ambizioarekin sortu behar da; belaunaldi berri baten premiei erantzuteko ambizioarekin.